

Gernika-Lumok dituen mendiko ibilbide laburretarik (PR) bat da hau, *PR-BI 181 Estuarioaren bihotzetik ibilbidea* izenekoa. Ibilbidea seinalatzaturik eta ikur zuri horiekin markaturik dago, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbak eskaintzen dituen 10 ibilbideetako bat da.

Txango honetan Urdaibaiko Biosfera Erreserbako goi estuarioa ezagutzeko aukera izango dugu. Baina lehenengo Gernika-Lumok eskaintzen digun mendi aldeko paisaiatik osteratxo bat egin ahalko dugu.

Udaletxetik Andra Mari elizara igo eta handik Gernikako Arbola ondotik pasatuko gara, Josefinen erresidentziara heltzeko. Galtzada zaharrak lotzen du Gernika-Lumoko herrigune nagusia Lumoko San Pedro auzoarekin. Ikuspegi ederra eskaintzen digu Lumok. Auzoko iturri zaharrean egarria asetu ostean, Bastegieta auzorantz jarraituko dugu, errepidetik. Basaltzoko substratua ageri da bide ertzean eta honen gainean Gaztainadi ederra eta artadi kantauriarrak hazten dira. Bastegietara heldu aurretik Kosnoaga mendira igozteko aukera dugu.

Bastegietatik Berriz aldera doa ibilbidea Hemen hasten da Baldatika errekarara jaisten den malda handiko bidea. Kontuz ibili hezetan handiko egunetan irrist egin gabe!


Baldatika errekarako urek hainbat errota jarri zituzten martxan, horietako bat dugu Goikoerrotako. Baso pista zabal batek lotzen du Goikoerrotako Foruko Armotxerri auzoarekin. Hemen izango ditugu ikusgai San Kristobal ermita eta Urdaibai dorrea; azken honek Biosfera Erreserbari izena ematen dio.

Foru aldera jarraituko dugu eta erromatarren kokaleku albotik igaro ostean, goi estuarioan sartuko gara. Zubi eder batek lotzen ditu berriz ere hainbat urtetan banaturik egon diren itsasadarren bi ertzak.

Kortezubiko Barrutibason zehar egingo dugu aurrera, baserriez eta hauei lotutako ondare natural eta kultural aberatsaz gozatzen dugun bitartean.

Harizti eder bat zeharkatu ostean helduko gara Barrutiara. Hortik berriro itsasadarrera jo behar dugu, jarraian Gernika-Lumora heltzeko.

FITXA TEKNIKOA



12,5
km
LUZERA

260
m
MALDA

PR-BI
181



oka itsasadarra, hegaztien babeslekua,

GOI ESTUARIOA

Oka ibaiaren estuarioa Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago. Mareek desberdin eragiten dute estuarioko hiru eremu nagusietan - goi, erdi eta behe estuarioan- eta horrek hainbat ekosistema agertzea eragin du. Horrela behe estuarioan hondartzak aurkituko ditugu, baina itsasadarrean gora, marearen eragina txikiagoa den eremuan, lezkadiak nagusituko dira. Hala ere, gaur egungo paisaia gizakiaren eta naturaren mendeetako elkarreaginaren emaitza da. Aipatzekoa da lezkadiak inguratuz agertzen den landazabala. Hemen baserria da nagusi eta honi lotutako ortu, baso, hesi bizi eta zelaiek mosaiko benetan bizia osatzen dute. Nekazaritza eta abeltzantza onduz sortutako ekosistemak balio ekologiko eta kultural handia du.




HEGAZTIEN BABESLEKUA

Goi estuarioan bizi diren animalien artean aipagarrienak dira bisoi europarra, mokozabala eta arrano arrantzalea. Hala ere, bide hauetatik osteratxo bat egitea besterik ez dugu lezkadia eta honen barruko kanaltxoak hegazti espezie ugarirentzat habia egiteko, atsedean hartzeko eta elikatzeko habitat aproposa direla ikusteko. Izan ere, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuan (HBBE) gaude. Lertxun hauskara, lertxuntxo txikia, antxeta mokogorria, kaio hankahoria, ubarroi handia, txirri arrunta, txirritxo handia, kopetazuri arrunta, uroilo arrunta, lezkari arrunta eta martin arrantzalea dira, besteak beste, goi estuarioko lezkadi eta ur ibilguetan aurkituko ditugun hegaztiak.



atxeta

Foruko Atxa mendi eremuan hainbat barrunbe ezagutzen ditugu, horien artean Atxetakoa. Koba hau ez da inoiz bizitokia izan. Bertan aurkitutako aztarnek erakusten digutenez sukarria lantzeko tokia zen hau, Errigoitik ateratako sukarria, besteak beste.



ikurrak

- | | | | |
|--|-------------------------|--|-------------------------|
| | Abiapuntua | | Atsedengunea |
| | Helmuga | | Iturria |
| | Garraio publikoa | | Eliza |
| | Turismo bulegoa | | Ermita |
| | Aparkalekua | | Dorretxea |
| | Taberna | | Galtzada |
| | Natura2000sarea | | Burdin Aroko gotorlekua |
| | Geologi interesgunea | | Erromatarren kokalekua |
| | Naturgune interesgarria | | Kobazuloa |
| | Gailurra | | Leixiba |
| | Ikuspegi panoramikoa | | Hegaztien behaketa |